FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak, enpresari bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroarengana iristea eta diru-sarrerak lortzea ahalbidetzen du eta hainbat atal ezberdinetan sailkatu daiteke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez, ezinbestekoa da lantokia azpimarratzea. Bilerak aurrera eramateko eta ideia garatu ahal izateko espazio batekin kontatzen baitugu, gure bulegoa.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: gure taldeko partaideen ezagutzak, besteak beste, Elenek moda industrian duen esperientzia, Maddik webguneak egiteko duen ezagutza, Arrateren enpresa munduaren ikasketak, Intzak antolakuntzarako duen abilezia eta Naroaren kontaktuak merkataritza munduan (materiala hornitzen duten enpresekin).

Finantzia baliabideetan, ordea, taldekideen artean bildutako diru kantitatea dugu, 1000€ gutxi gora behera.